

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 187.446 euro inbertitu du Buztintxuriko Ikastetxe Publikoaren kirol-pista estaltzeko

*Otsailean prest izango den instalazioa egitura metaliko batek osatzen du 16 zutaberekin eta 7 metroko gutxieneko altuerarekin*

Jueves, 05 de enero de 2012

Buztintxuriko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoak kirol-pista estalia izango du datorren otsailetik aurrera. Nafarroako Gobernuak 187.446 euro inbertitu du obra horretan, hau da, existitzen den pista estaltzen.

Obra Iruñeko Victor Eusa kaleko 1. zenbakian, erdigunearen alboan dago, 866 m<sup>2</sup> inguruko azalera du eta

honako honetan datza: egitura metaliko bat egitea 16 zutaberekin eta 7 metroko gutxieneko altuerarekin alde baxuenetan, alboko aldeak irekita izanik. Luzera handieneko aldea partzelako ardatz hego-ekialde eta ipar-ekialdean dago. Pistak ipar-ekialdea eta hego-ekialdea beste partzela batzuekin mugakide egiten du, ipar-ekialdean Victor Eusa kalearekin eta hego-ekialdean Iruñeko Santos Ochandátegui kalearekin.

Proposatutako bolumena angeluzuzena da, horrenbestez, ikastetxeko gainerako eraikinen lengoaiari erantzuna emateko. Erdiguneko eraikinetan integrazio formala bilatzen da. Gainera, estalkiaren egiturapean fokuk jartzea aztertzen da.

Proiektuaren egileak Arquitectos Asociados-eko Santiago Iribarren, Rafael Rojas, Alberto Valls eta Miguel Angel Zabala dira, eta eraikuntza-entresa, berriz, Arian Construcción y gestión de infraestructuras, SA.

Jardunbide hau ikastetxe publikoetako instalazioek ahalik eta baldintza onenak izateko helburu orokorraren baitan kokatzen da, ikasle guztiei kalitatezko hezkuntza bat bermatze aldera, irakaskuntza fisiko eta kirol-irakaskuntzako curriculum-a barne.

### 4.055 metro koadroko azalera eta 229 ikasle

Buztintxuriko Haur eta Lehen Hezkuntzako IPak 2008ko urtarrilean zabaldu zituen ateak. Ikastetxea Iruñeko auzo horretako 9.000 m<sup>2</sup>-ko partzela batean dago, eta 4.055 m<sup>2</sup>-ko azalera erabilgarria du, beheko, lehenengo eta bigarren solairuetan banatuta. Ikastetxearen parean,



Obren egoera abenduaren 21ean.

eraikinaren arrapalak bereizita, jolas-patioa dago kirolgunearekin.

Ikastetxean A (gaztelania) eta D (euskara) ereduak ematen dira ingeleseko errefortzuarekin, eta Haur Hezkuntzako 229 ikasle ditu gaur egun -5 urte arte-, guztira hamar taldetan banatuta. Lehen Hezkuntzako ikasleak datorren ikasturtean hasiko direla lanean aurreikusita dago.